

"Ricardo Baroja" Ikastetxe Publikoa  
Haur eta Lehen Hezkuntza  
Alzate, 8 - 31780 BERA  
948 625019 Telefonoa / 948 625082 Faxa  
Posta Elektronikoa: cpbera@educacion.navarra.es  
Web: www.ricardobarojaeskola.net  
NIF: S3199044C



KALITATEKO IKASTETXEA  
CENTRO DE CALIDAD



Ricardo Baroja  
eskola publikoa

Colegio Público "Ricardo Baroja"  
Educación Infantil y Primaria  
Alzate, 8 - 31780 BERA  
Teléfono 948 625019 / Fax 948 625082  
Correo electrónico: cpbera@educacion.navarra.es  
Web: www.ricardobarojaeskola.net  
NIF: S3199044C

1

## GURE ESKOLAKO GURASOEI:

Lehenik eta behin AGUR BERO BAT guztiei eta, berriak zaretenei bereziki, ONGI ETORRIAK!  
Idazki honen bidez, 2021-2022 ikasturteko antolamenduaren xehetasun batzuk azaldu nahi dizkizuegu. Aurten, 191 ikasle izango ditugu gure eskolan eta bertan lanean arituko garen irakasle taldea honako hau da:

**H.H. 3 urteko gela:** Arantxa Oyarzun  
**H.H. 4 urteko gela:** Ana Hernandorena (Idazkaria)  
**H.H. 5 urte A gela:** Amaia Olasagasti  
**H.H. 5 urte B gela:** Ainhoa Agesta  
**L.H. 1.go maila:** Itziar Arozena  
**L.H. 2. maila A:** Dane Olasagasti  
**L.H. 2. maila B:** Jon Txurio  
**L.H. 3. maila:** Idoia Taberna / Arantxa Mitxelena  
**L.H. 4. maila A:** Maite Altxu  
**L.H. 4. maila B:** Nagore Uribe / Miren Irurzun  
**L.H. 5. maila A:** Maite Blanco  
**L.H. 5. maila B:** Gorka Rodriguez  
**L.H. 6. maila:** Joxerra Lopez  
**HH laguntza:** Rosa Eugi (Zuzendaria)  
**LH 3. zikloan:** Eider Zapirain (Ikasketa Burua)  
**LH laguntza:** Ioritz Arrondo  
**Ingelesa HH eta LH 2:** Nekane Pedrosa  
**Ingelesa LH 1, LH 3 eta LH 4B:** Itxaso Villanueva  
**Ingelesa LH 4 A, LH 5 A, LH 5 B eta LH 6:** Julen Olascoaga / Vanesa Garcia  
**Frantsesa:** Fermin Santxez  
**Gorputz Heziketa:** Jon Ollo eta Haritz Egues  
**Musika:** Axun Ezkurra  
**Erljioa:** Iñigo Aguirre  
**Orientatzaileak:** Sara Largo eta Maider Zabaleta  
**Pedagogia Terapeutikoa - Gela Alternatiboko tutorea:** Inaxio Sansiñena  
**Pedagogia Terapeutikoa:** Itsaso Otondo  
**Hizkuntza eta Entzumen irakaslea:** Jaione Jimenez  
**Zaintzaileak:** Belen Azpiroz eta Tere Aleman

Jakin arazi nahi dizuegu, aurten SKOLAE (hezkidetzak) programarekin jarraituko dugula, eta irakasleok, LAGUNTZA (Emozio Hezkuntza) programan formatuko garela bertzeak bertze.



"Ricardo Baroja" Ikastetxe Publikoa  
Haur eta Lehen Hezkuntza  
Alzate, 8 - 31780 BERA  
948 625019 Telefonoa / 948 625082 Faxa  
Posta Elektronikoa: cpbera@educacion.navarra.es  
Web: www.ricardobarojaeskola.net  
NIF: S3199044C



KALITATEZKO IKASTETXEA  
CENTRO DE CALIDAD



Colegio Público "Ricardo Baroja"  
Educación Infantil y Primaria  
Alzate, 8 - 31780 BERA  
Teléfono 948 625019 / Fax 948 625082  
Correo electrónico: cpbera@educacion.navarra.es  
Web: www.ricardobarojaeskola.net  
NIF: S3199044C

**Zuzendaritza orduak:** Asteartean 11:30etatik 13:00etara.

**Idazkaritza orduak:** Asteartean, 10:30etatik 11:15ak arte.

**Tutorearekin biltzeko ordua:** Bakoitzak bere tutorearekin ordua zehaztuko du.

**Jantoki zerbitzua:** Ricardo Barojako jantoki-zerbitzua, guraso elkarteak kudeatzen du baina, Xulufraia Fundazioa da lehengaien eta zaintzaileen kudeaketaz arduratzen dena. Zaintzaile guztiak eskolako gurasoak dira.

Gaur egun, Xulufraia Fundazioa 6 gurasok osatzen dute eta, beraien arduren artean, ahalik eta elikagaia ekologiko gehien erabiltzea eta ekoizleak zonaldekoak izatea daude.

Dakizuenez, irailean eta ekainean ere zerbitzu hau eskaintzen da. Irailaren 8an hasi eta ekainaren 22a bitartean iraunen du.

Egunero gelditu behar dutenek hilabeteko kuota ordainduko dute. Egunero gelditzen den ikasleren batek, egunen batean ez badu gelditu behar, goizeko 10:00ak baino lehen abisatu behar du sukaldean, edo **640818992** whasapp zenbakira mezua bidaliz.

Beti bezala, egun bakanetan geratzeko aukera ere badago, aski izanen da goizean (10:00 baino lehen abisatzea).

Errezibo guztiak (egun banakakoak ere) banketxetik pasatuko dira. Horretarako kontu zenbakia eskatuko zaizue.

**Arduraduna:** Marta Vivanco

### **Guraso Elkartea:**

Guraso Elkartea gela bakoitzeko ordezkariekin osatzen da, eta partaideak ikasturtean zehar, behar den aldiro elkartzen dira.

**Lehendakaria:** Jaione Aginaga

### **Hurtzaindegi zerbitzua:**

Aurreko ikasturteetan bezala, aurtien ere hurtzaindegi zerbitzua (gosaria barne) egonen da, goizeko 8:00etatik 9:00etara.

**Arduraduna:** Leire Irurieta

### **Materialaren kuota:**

Urtero, ikasleek erabiliko duten material suntsikorra eta fotokopiak ordaindu ahal izateko diru kopuru bat eskatzen zaizue.

Ordainketa **SEPA bidez eginen da**, SEPA baimena sinatua ez duten familiek honako kontuan egin beharko dute ordainketa:



"Ricardo Baroja" Ikastetxe Publikoa  
Haur eta Lehen Hezkuntza  
Alzate, 8 - 31780 BERA  
948 625019 Telefonoa / 948 625082 Faxa  
Posta Elektronikoa: cpbera@educacion.navarra.es  
Web: www.ricardobarojaeskola.net  
NIF: S3199044C



KALITATEZKO IKASTETXEA  
CENTRO DE CALIDAD



Colegio Público "Ricardo Baroja"  
Educación Infantil y Primaria  
Alzate, 8 - 31780 BERA  
Teléfono 948 625019 / Fax 948 625082  
Correo electrónico: cpbera@educacion.navarra.es  
Web: www.ricardobarojaeskola.net  
NIF: S3199044C

**La Caixa: 21003693212200031720.** Sarrera egitean zuen seme alaben izena eta abizena agertzen direla egiaztatu eta egiaztatzea tutoreari eman.

Hauk dira ordaindu beharreko kopuruak:  
Eskolan seme-alaba bakarra dutenek: 40 euro  
Eskolan bi seme-alaba dutenek: 60 euro  
Eskolan hiru seme-alaba dutenek: 70 euro

### Egutegia

Aurtengo egutegia ekainean igorri genizuen eta eskolako web orrian kontsultatzen ahal duzue.

Ordutegiari dagokionez gogoratu:

**Irailean:**

**HH 9:00etan sartu eta 14:45etan irten.**

HHkoek 13:00etan bazkalduko dute. Etxera bazkaltzera joaten diren haurrak 13:45etan umea eskolara ez ekartzeko aukera daukate.

LHkoek 9:00etatik 14:00etara izanen dute klasea. Eskolan bazkaltzen geratzen direnak, 14:45tan aterako dira.

**Aurtengo egoera dela eta, Departamenduko jarraibideei kasu eginez, urrian ordutegi aldaketak izanen dira eta agian baita urtarrilean ere. Aldaketa hauen nondik norakoak jaso berri ditugu eta antolatzen ari gara. Zehaztu bezain pronto informazioa igorriko dizuegu.**

Ikasturte hasierako guraso bileren egutegia:

Aurrerago jakinaraziko zaizkizue datak eta orduak.

Gogoratu zuen seme-alabentzat hagitz garrantzitsua dela zuen partaidetza. Guraso eta irakasleen arteko harreman zuzena eta estua hagitz onuragarria da.

Aurtengo egoera dela eta, ikasle bakoitzako **familiakide bakarra** etortzea eskatu behar dizuegu, ahal den heinean segurtasun neurriak aplikatu ahal izateko.



"Ricardo Baroja" Ikastetxe Publikoa  
Haur eta Lehen Hezkuntza  
Alzate, 8 - 31780 BERA  
948 625019 Telefonoa / 948 625082 Faxe  
Posta Elektronikoa: cpbera@educacion.navarra.es  
Web: www.ricardobarojaeskola.net  
NIF: S3199044C



KALITATEZKO IKASTETXEA  
CENTRO DE CALIDAD



Colegio Público "Ricardo Baroja"  
Educación Infantil y Primaria  
Alzate, 8 - 31780 BERA  
Teléfono 948 625019 / Fax 948 625082  
Correo electrónico: cpbera@educacion.navarra.es  
Web: www.ricardobarojaeskola.net  
NIF: S3199044C

**Baimenak:** Familia berriei posta elektronikoz galdetegi bat iritsiko zaizue zenbait baimen eskatzen.

**IKEE eta Zerbitzuen Gutuna:** Edozein Iradokizun, Kexa, Erreklamazio edo Esker ona izanez gero eskolako web orrian inprimakia eskura izanen duzue.

**Irteerak:**

Ikasturtearen zehar egiten ditugun irteerak, tutore edo zuzendaritzaren bidez izanen duzue horren berri. Aurtengo irteerak ere, departamentutik bidalitako segurtasun jarraibideak errespetatuz egin beharko ditugu.

**Kontingentzia plana:**

Aurten ere iaz bezala kontingentzia plana martxan jarria dugu. Hala ere, aldaketa esanguratsu batzuk aipatu nahi dizkizuegu:

- Alde batetik, aurten LHko ikasleek, **hamaiketako patioan** egin ahal izango dute.
- Bestalde, HHko ikasleek autobusean musukoa erabili beharko dute, baina **ez eskola barruan dauden denboran.**

Gogoratu kontingentzia plana eskolako web orrian aurkituko duzuela.

AGUR BERO BAT.

Ricardo Barojako zuzendaritza